

## Mexico-ko Mondragon-UCO Unibertsitateako LEINNeko ekintzaileak Oñatin dira beren lenengo ikasketa bidaian.

2015/10/28

Guztira 23 ikasle hurbildu dira MONDRAGON UNIBERTSITATEAK Oñatin duen campus-era, beren Europako lenengo ikaste bidaia delata. Ameriketako lenengo generazioa dugu LEINNen bisitan duguna Euskadin. MONDRAGON UNIBERTSITATEAK orain dela urte bete campus hau ireki zuen Queretaron(Mexico) gradu desberdinak eskeiniz. Irailean, MONDRAGON Team Academy-rekin batera LEINN gradua hasi da Mexicon. Gradu ofizial hau bakarra da Espainian eta Madril , Bartzelona, Balentzia, Amsterdam, Txina eta Indiarra, eta oraingoan Mexicora zabaldu da.

Bisitaren helburua LEINN ondo ezagutzea litzaketeke, hemengo ekintzaileak ezagutu, bertan ditugun berrikuntza laborategiak erabili, beren proiektuak bultzatu eta baita hemengo leinuerenak ere eta, nola ez, beren esperientzia internazioala ahalik eta gehien aprobetxatu.

### **Bi enpresa sortuak**

23 ekintzaile hauek, hilabete t' erdi honetan kurtsoa hasi eta gero bi enpresa sortu dituzte: Mantic Taldea, beren hizkuntza indigenan "egin" esanahia duena; eta 2E, hitz joko bat taldeko parte hartzaileen zenbakia adierazteko. Beren aktibitateak asko izan dira orain arte, Queretaroko 4 herritan komertzializazio gastronomikoa bultzatu, "Torneo Nacional Charro" delakoan hornitzaile moduan parte hartu, beren hiriko hotel ezagun batetan makillaje kurtsoak eskeini, etabar.

